

Sotoan edo atikoan idaztea

● Helduentzako ez ezik, umeentzako ere idazten du Starobinetsek, eta «etxearen metafora» baliatu du bikoiztasun hori azaltzeko, Bilbon. «Etxe horrek soto bat du, iluna, ezatsegina, eta munstro beldurgarritz beteta dagoena. Sotora jotzen dut helduentzako idatzi ahal izateko. Badakit izaki horiekin nola jokatu, badut giltza, eta azkar mugitzen naiz. Sartzen naiz, ikusten dut, ateratzen naiz, eta inork ez du minik hartzen. Jendeari gustatzen zaio esperientzia horiei buruz irakurtzea, gehienak ez direlako euren sotora joaten. Aldiz, umeentzako idaztean atikora joaten naiz. Han izaki miragarriak daude, txoriak, katuak eta maitagarri gisa-koak. Errazagoa da atikora joatea, baina interesgarriagoa da sotora joatea. Eta nik etxea dut bizitoki».

edo. Kontratu handi bat ere sinatu nuen plataforma batekin, liburu moduan ez ezik, atalka, fikziozko irratsaio modura ere zabal zedin. Gero, gerra hasi zen, eta sartu egin zen istorioan. Eta orain ez dakit horrekin zer egin. Besteak beste, kontratua sinatu nuenean ez nuelako inongo legerik urratzen, baina orain bai. Hori borratzeko eskatzen badidate, ezetz esango dut, eta orduan...

Errusian eskandalua sortu zuen galdu zenuen haurrari buruzko ez-fikziozko liburuak ere. Apaldu da eskandalu hori?

Gerra hasi ondoren argi geratu da arrazoi berberak eragin zutela eskandalu hura ere. Bizitza ulertzeko gure sobietar era tradizionalaren aurkako erasotzat hartu zuten. Oso ikuspegi liberala nuelako, besteak beste, nire giza sentimendu eta ideiak kontuan har zitezen proposatzen ari nintzelako. Isildu egin behar nukeela esaten zuten, ez nukeela, errusiar esaera batek dioen bezala, zaborra etxetik kanpo atera behar, horixe egiten ari nintzelako, haien begietara, errusiar zaborra mundu guztiari erakutsi.

Antiabertzale izatea leporatzen dizute, beraz.

Liburua gorrotatu zuten guztiak orain SESBen berpizkundearen edo dena delakoaren alde ari dira. Existitzeko bi moduren arteko talka bat da hau, eta liburu hori izan zen [irribarrez] herrialdearen etsai bilakatzeko egindako lehen urratsa. ●

KRITIKA

Munduaren gainbeheraz

Irati Majuelo

Idazle joritsua da Xabier Montoia, 1980ko hamarkadatik hona argitalpen zerrenda luzea osatu du literatur genero ugarran. Poesia idazten hasi zuen bere ibilbidea, eta halaxe eman dio segida oraingoan ere. Hemezortzi urte igaro dira azken poema liburutik, eta esan daiteke aro berri bati eman diola abiapuntua *Hiriak eta urteak* lanak. 2005ean *Bingo*-n bildu zuen ordura arteko poesiaren atzera begirakoa; esan gabekoak eta berridazketak. Harekin fase bat itxi zuen, puntu eta aparte egin. Pamielak argitaratu duen azken lan honetan, berriz, izan zen poetaren estilo eta begirada bereizgarriak mantenduta, beste bizialdi bati erantzuten dion liburua aurki dezakegu.



'HIRIAK ETA URTEAK'
Idazlea: Xabier Montoia.
Argitaletxea: Pamiela.

Jardun apetatsutzat jotzen du poesia Montoiak, horretara berariaz jarri gabe berez datorkion zerbaiten gisan, iritsi bezala alde egiten duena. Igartzen da kaleko irudiak, notizia bitxiak, kantuak izan dituela poema askoren lehen oinarri, ideia arrunt batetik abiatzen dela sarri gogoe-ta-katea. Alabaina, ezin esan inspirazioari bere soilean zor zaizkion poemak direnik,

landutako testuak baitira, zorrozte eta kimatze galbahe batetik pasatutakoak. Esan nahi denaren muinera jotzeko eta hori adierazteko moldea topatzeko saiakera antzematen da, besteak beste, hizkuntzaren aukeraketan, beharrezko elipsietan, erreferentzietan zein forma klasikoaren erabilera.

«Munduak ez dirudi hemen mundu», abiatzen da poemetako bat, eta ideia hori da, ziur aski, liburu guztia zeharkatzen duen haria. Bizi dugun mundua gainbeheran dago, odoletan, hil-aurreko azken argazkia atera baliote bezain garden eta indarge. Gizakiaren jarduna jartzen du jopuntuan Montoiak. Ironia baliatuz edo hitz gordinez, izurrite eta zorigaitz ororen erantzuletzat hartzen du gizakia, bere burua salbuetsi gabe.

Idea horren bueltan, animaliek hartzen dute protagonismoa liburuaren lehen zatian: gizakiei ihes egiten diete, haiengana oldartzen dira, pertsonak arantzurde, zakur eta dinosaurotan gorpuzten dira eta animaliak, aldiz, pertsonifikatzen. Poemek aurrera egin ahala, munduaren dekadentziaren ideia espazioan materializatzen da, hirietan batik bat, idazlearen gai kutunetako batera itzuliz. Hala, hiri erreal zein asmatuikoei buruzko poema sortak espazio aseegin, zital eta hiltzaile gisa definitzen ditu, gorpuzak gorpu bilakatzen dituen ingurune gisa. Azkenik, idazleak gizakiengana biratzen du liburua, maitasunaz, arteaz, heriotzaz gogoeta txikiak aurkeztu eta mundua «funtsean zikin putzu bat» besterik ez dela birgogoratze. ●

KRITIKA

Aupa Primi eta aupa Maurizia!

Imanol Mercero

Album ilustratu peto-peto honek magia egin nahi du, eta lortzen du, xaramelatzen uzteko prest denarekin.

Euskal Herriko Trikitixa elkarteak eragindako emaitza literarioa da, haurrei begira sortua eta ipuingile profesionalen eskutetan eratua. Helburua bi pandero jole mitikoren biografia gizarteratzea da, musika tresna honen apologia egitearekin batera. Primi Erostarbe pandero jole eta irrintzilaria, batetik, eta Maurizia Aldeiturriaga pandero jole eta kantaria, bestetik.

Kontakizuna ez da narrazio arrunta, eta zail egiten da ohiko irakur-moldean jarraitzea. Hogeita bederatziruditan eskainia, bizpahiru esaldi errimatu bakoitzeko, balada klasikoaren (*Bereterretxeren kantoria*, etab.) antzeko



'LARRU MARRUAK'
Idazlea: Ixabel Agirresarobe.
Ilustratzailea: Mattin.
Argitaletxea: Denonartean.

egitura osatzen dute: aurkezpena naturari erreferentzia eginez («Haize hegоя ala zoroa?/ Edozer gauza: egiten du halako beroa!»), *in medias res* abiatu («Urrunean irrintzi eta orroa./ Maurizia gelan gordea./ Primi asto gaineen badoa»), eta gertaeren aipamen soltez garatu kontakizuna, irakurleak —entzuleak— osatuko duelakoan. Ez dira falta Mauriziaren kanten aipuak testua osatzean.

Amaieran panderoari buruzko azalpenak daude, QR eta guzti. ●

KRITIKA

Jolasean

Imanol Mercero

Tamaina txikiko album ilustratu honek euskal sorkuntzen artean leku berezia irabazi du, euskal egile gutxi aritzen baitira haur hezkuntza garaiko irakurleei begira lanean.

Albumak tamaina txikiko formatua du, 17x17 cm-ko karratu perfektua, azal gogorrekin eta orri ohi baino sendoagoekin.

Jolasaldi baten kronika da, haur protagonistak irakurleari gertatu ahala azaltzen diona, orainaldi jarraituan. Sinbolikoa deitzen zaion erako jolasean ari da Maddi protagonista, irudimenarekin ingurunea eta norbere identitatea antzaldatuta. Maddik hegazkin (aireplano) bidaia bat osatzen du, bera pilotu dela. Hortaz, abiatzen da goraka eta ingurunea nola den aldatzen deskribatzen digu, nola behean gelditu direnak txikitzen diren eta goikoak, aldiz, handitu. Aipatzen ditu goiko izarrak,



'MADDIREN AIREPLANOA'
Idazlea: Antton Kazabon.
Ilustratzailea: Maite Rosende.
Argitaletxea: Denonartean.

eta hodeiak, eta ilargia. Aipatzen ditu beheko etxeak, eta mendiak, eta pertsonak. Aipatzen ere iluntasuna eta argitasuna. Beheraka doanean berriz ere, handitzen direnak, txikitzen direnak. Halako batean ama agertzen zaio, eta jolasaren amaiera iristen da.

Kolore kontraste handiko masak dira irudiak, collage eitean eraikiak, sinplifikazio-eramanak. ●